

INGURUMENA. Herritarren «hitza eta erabakia» aintzat hartzeko eskatu dute protestaldiarekin bat egin dutenek

Milaka lagunek eskatu dute berriro ez dezatela egin Boroako zentral termikoa

Udal gobernua ESB enpresari jardura eta lan baimenak ez ematea galdegin du Zornotza Bizirik plataformak



INIGO AZKONA

Antolatzaileen hitzetan, 7.000 lagun batu zituen manifestazioak, «inoiz baino jende gehiago».

Iban Ocio | **ZORNOTZA**

Boroan ziklo konbinatuko zentral termikoa egiteko proiektuaren aurkako protestaldia egin zuten atzo milaka lagunek Zornotzako kaleetan barrena. *Guztion artean geldituko dugu. Zentral termikorik ez* lelopeko manifestaziora bildu ziren, besteak beste: Zutik, Batasuna, IU-EB, Ekologistak Martxan eta Eguzki taldeak. Eusko Legebiltzarreko

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok ere bat egin zuen Zornotza Bizirik plataformak antolatutako ekitaldiarekin.

Manifestazioan parte hartu zuen jende oldeak —7.000 lagun, betiere antolatzaileen arabera— ESB enpresaren hirigintza egitasmoa ezereztatzea aldarrikatu zuen, eta udal gobernua herriaren «hitza eta erabakia» aintzat hartzea galda-

tu. Halaber, Zornotzako alkate Begoña Azarlovak aspaldi iragarritako erreferendumari bide emateko eskatu zuten.

Protestaldi koloretsua

Udaletxeko plazatik abiatu zen atzoko agerraldia; zentral termikoaren aurka egindako bosgarrena, alegia. Jendetzak eguerdiko 13:00etan ekin zion ibilaldiari. Zornotza Bizirik plataformako ekintzaileek egin zu-

ten itzulia manifestazioaren buruan. Atzerago joan ziren ordezkari politikoak eta gainerako elkarte ekologistekoak.

Haur eta gazte, heldu eta zahar, guztiek *Zentral termikorik ez* lelopeko kartel deigarriak zituzten eskuetan. Gorri, hori, orlegi... hainbat kolore, aldarri bakarra: ESB enpresa irlandarrak Boroan eregi gura duen ziklo konbinatuko planta energetikoa bertan behera uztekoa. Ma-

nifestariet, gainera, txilibitua jotzen igaro zuten protestaldiak iraun zuen ordua.

Hiriko kale nagusiak zeharkatu eta Zelaieta parkean eman zioten amaia ekitaldiari. Zornotza Bizirik plataformako kideek bertaratutakoak agurtu eta deialdiaren arrakasta goratu zuten: «Gaur inoiz baino lagun gehiago batu gara Zornotzan proiektu zikin hau geldiarazteko. Gaur, gainera, zentral termikoaren aurkako 15.000 sinadura bildu ditugula jakinarazi gura dugu», azaldu zuten.

Elkarteko bozeramaileek ESB enpresak abiarazitako propaganda kanpaina arbuia zuten. Eledunek Boroako zentrala eraikitzekotan den konpainiaren azpijokoak salatu zituzten. «Hiriko gutun-ontzietan inprimaki nazkagarriak botatzten, dendetara eta tabernetara gutunak bidaltzen eta gazteen zako sasi-lehiaketak antolatzen dihardute, sari ederrak eskainiz», salatu zuten. «Diruaz bakarrik berba egiten dute, baina ez gaituzte engainatuko».

Plataformako kideek azaldu zuten Europari igorri diotela ESB enpresaren aurkako salaketa: «Zornotzako 60 bat albaitarik, botikarik eta osagilek osatu dute salaketa oinarritzen den txostena. Agiriak dio zentralak kalte eragingo diela ingurumenari eta biztanlearen osasunari».

Manifestariet egin zuten azken gauza ozen oihukatzea izan zen: *ESB kanpora! Herriaren erabakia errespetatu!*

RAMON DUDAGOITIA

Zornotza Bizirik plataformako eleduna



«Jarrera antidemokratiko eta faxista da EAJko buruzagiena»

«ESB enpresak falta dituen agiriak ez jasotzea dugu helburu. Azkenaldian behin eta berriro eskatu diogu Zornotzako alkate Begoña Azarlovaz jardura eta lan baimenak ukatzeko», esan zuen Zornotza Bizirik plataformako eledun Ramon Dudagoitiak. «Dena den, agerikoa da Eusko Legebiltzarreko EAJren lana zentral termikoaren eraikuntza ziurtatzea dena. Alde horretatik, Zornotzako Udalak izandako presioak salatu gura ditugu; lotsagarria da Josu Jon Imaz eta Jose Luis Bilbao biltzar-kideak hona etortzea eta Azarlovaren lana ezbaian jartzea. Ahoa demokrazia hitzaz ondo bete dute, baina argi dago haien jarduna ez dena demokratikoa».

JAVIER MADRAZO

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua



«Ingurumenari eta herritarren osasunari kalte eragingo zaie»

Berriki Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok esan zuen IU-EBk eutsiko ziolako Boroako zentral termikoaren aurkako lanari. «Zornotzako herritarren aburua aintzat hartzeari ezinbesteko deritzogu. Jaurlaritzak ezin du bazter utzi biztanleen iritzia eta halako proiektuei baimena eman. Batetik, herritar gehienek aurka egitea demokraziaren kontrakoa delako. Bestetik, EAJk badakielako ziurrena dena zentral termikoak ingurumenari eta biztanleen osasunari ere kalte eragitea», esan zuen. Madrazoren iritziz, «beharrezkoa da Begoña Azarlovak aurreikusitako erreferenduma egitea».

EUSEBIO LASA

Batasuneko Mahai Nazionalako kidea



«Zornotzarren hitzaren arabera jardun behar dute EAJk eta ESBk»

«Gaurko protestak argi erakutsi du Zornotzako biztanleen iritzia zein den. Ez dute zentral termikoaren eraikuntza onartzen inondik inora», esan zuen Batasuneko Mahai Nazionalako kide Eusebio Lasak. Ziklo konbinatuko plantaren proiektua gaitzetsi eta hiru zio nagusi aipatu zituen argudio gisa: «Batetik, Zornotza Bizirik plataformak antolatutako ekitaldiak bildu dituen milaka pertsonen ezetza eman diote egitasmo erraldoiari, berriro ere. Bestetik, EAJk eta ESBk herritarren nahia gogoan hartu eta horren arabera jardun behar dute. Azkenik, derigorrezkoa da hain gustuko dituzten arau demokratikoak aintzat hartu eta proiektu energetikoa alboratzea».